

8. Felix Zubiaga Legarreta: *Euskararen ereduak*



Felix 1932an Errigoitin jaioa da eta Filosofia eta Erromanikar Letretan Lizenziatua da Deustuko Unibersitatean, *Unamuno y las lenguas peninsulares* (1973) tesiarekin. Unibertsitate bereko Doktorautza Ikasketak egina da (1996-1998) *Vascuence y mitoanálisis*.

Euskarari eman dizkio bere maisutzako urterik gehienak Lauaxeta Ikastolan eta ipuin, antzerki, elaberrri eta poesia lanak egin eta batzuk argitaratu ere egin ditu: *Errosarioren kuzkuak*, *Agora*, (Donostia Saria), *Kalean andre*, (Bizkaiko Aldundiko Saria) eta elaberrigintzarako beka batzuk ere lortu ditu. Olerkigintzan, *Zure argi kliskak* (Arrese Beitia Saria, 1986) eta *Oi Emmanuel!* (Lizardi Saria 1991).

Azken urteotan euskararen ikerketan ekiten dio Eleiker Bildumaren inguru *Vascuence y mitoanálisis* jarraipenean, metodologiaz etxeko etnografia, toponimia eta euskara bera Antzinako Sortalde Hurbileko mitografiarekin gonbaratzen dituela. Honezkero, liburu hauek argitaratu ditu proiektu honen barruan:

Vascuence y mitoanálisis / Euskararen ereduak / Jainkoa eta gizakia euskararen oroitzan / Euskal mito-erritoak eta euskara / Apellidos y nobleza / La onomástica, oído de la prehistoria o el vascoeuropeísmo / Analogía, arte del lenguaje, según el vascuence./ Antiguo Testamento del vascuence / Euskararen jakinduria / Euskara mito bizia / Origen y desarrollo del lenguaje (según el vascuence) / Zuzentza eta eskubidea euskararen oroitzan / Euskara bere bitan (psikoaztertuz) / Vascuence, inconsciente colectivo.

Harremanetarako: felixzubiaga@padrespasionistas.e.telefonica.net



Eleiker: ele-ikerketa

Eleiker ele-ikerketa da, hots, hizkuntza-ikerketa eta behinik behin:

- a) euskara mitoaztertuz euskararen argibidez eta argibidetan eginiko filologia-lana da.
- b) Euskal etnografia eta herri jakinduria Antxinako Sartaldeko Hurbileko mitologia eta jakinduriarekin konparatuz, euren arteko senidetasuna egiztatu.

Behin euskara mitoaztertuz eta euskal etnografiak Sortaldeko kulturekin egiten duen zubia azalduaz, euskararen hermeneutika argibide harrigarria egiten da edozein giza arloko ikerketak burutzeko.

1. Euskararen egitura eta jatorria ikertu

Ez da gauza bera euskararen egiturak ezagutzea eta bere jatorria ezagutzea, baina funtsean bata bestera daroa, adinak ezagutzeak gurasoen nortasuna ezagutzera daramaten bezala. Hartarako bide berria proposatzen da: mitoazterketa eta gramatikaren zatia den analogia sakonean ezagutzea.

1.1. Mitoazterketaz euskararen jatorria azaldu

Euskara, beste hizkuntza asko bezala, Neolitos garaian sortua denez, orduko gizakiaren pentsakera aztertu behar da, haren aburuez euskara aztertu ahal izateko eta ez gaurko hizkuntzalarien metodologiez.

Metodoak bideak dira eta hain baliagarriak helburua iristen laguntzen diguten heinean, bestela bide galdutzat jo behar dira. Adibidez, euskara hizkuntza ezezagunen gelan bazterten duten analisiak edo linguistika teoriak.

Neolitosko gizakiak jarraitu zuen bidea ibili behar da euskara elearen asmoa eta egitura zertan den jakitekotan. Nola pentsatzen zuten gure asabek, nolatan adierazten zituzten ideiak, keinuez, marrazkiez, edo hots ahoskatuz.

Bide guztiok erabili zituen, hanean, gaur bertan ere erabili ohi ditugun bezala eta guztiotan agertzen da gizakiaren artea eta artezia, baina arterik bikainena hots ahoskatuak taxutzeko asmakizunean erakutsi zuen eta hots ahoskatu bakoitzaren bidez ideiak berezi eta bakoitz azaltzean eta hotsok elkarrekin jostean, burutu ahal izan zuen hizkuntza, monosilabismotik hasi eta aglutinaziotik zehar, hizkuntza zaulia osatzeraino.

1.2. Mitoazterketa metodoa

Neolitos sakoneko mitoek eta haren jarraiko jakinduria idazkiek azaltzen digute antxinako gizakiaren pentsamoldea eta, harez gero, gizakia jatorrizko ideia haien pentsutan dagoke, sikoanalistek dinotenez. Gaur bertan ere, jakintzan heldutako gizakia antxinako gizakia harrigarritzen zuten izadiko ikuskizunen lilurapean dagoelako.

Hori dela-eta, gaurko gizakiaren eta gizarte arloko ikerketak mitoazterketara jotzen dute, haria giza burmuinean harilkatzen hasi zenetik eta hona hartzeko asmotan eta, halatan, fruitu onik ere eman dute erlijioen historialariek, Bibliako exegetek, antropologoek, teologoek, sikoanalistek, filosofoek, filologoek, etab.



Filologook, ordea, testu zaharrak edo berriak bakarrik aztertzen hasi baino ez dira egin eta hortaz mitoaztertzen dituzte hizkuntzak eurak, hots, mitoak azaltzeko sortu zituzten mito biziak.

Lan hau, agian, hizkuntzalari edo linguistentzat uzten dute, baina hizkuntzalariek ez dute mitoanalizatzen, ausaz, euskararen gela ilunean eguno ez direlako sartu edo sartzeko beldur direlako. Bestalde, oraindino antxinako *mitoa* ipuinaren pareko edo atzerapenaren ikurtzat daukate estrukturalistek eta arrazionalistak, antxinako gizakiaren jakinduria, pentsakeraren lorpenak merketxo gutxien dituztelarik, mitoaren jakinduria zertan den ere galdetu gabe. Hizkuntzalarien jokaera horrek euskara, *mito bizia* saldu egiten du gaur bertan, inobre baloratu beharrean.

1.3. Euskara mitoaztertu

Euskara, Neolitos sakoneko hizkuntza denez gero, ikerketa honetarako inon denik hizkuntza jaiena da. Euskara sakonean ulertzeko, Neolitos kultura sortu zeneko unera jo eta hango mitoak eta jakintza ezagutzea dago, sumeriologiak, egiptologiak eta sail bereko beste ikerketak egizatzen eta hartarako bidea egiten digutela.

Besteen ikerlanak ustiatzea dagokigu, euskararen sorburua dugula helburu. Baina euskarak bai al du Sortalde haietako hizkuntza zahar edo oraingoekin ezelako senidetasunik? Hizkuntzalariek baietz dinoe.

Historiak ere Sortaldeko Iberia eta Sartaldeko Iberia kultura bereko alderditzat jotzen ditu, Megalitos aurretik, Megalitos artean eta ostean, indoeuropearren ustezko sarrada eta erromatarren erasora arteino.

Euskara esparruak, bestalde, antxinetik du Ainamendi inguru honetan bere kokagunea edo, hobeto esan, aspaldidanik gordetzen da Euskal Herrian. Lur honetako onomastikak bai ote du hako beste lurraldekoekin zerikusirik?

Lurraldeen onomastika, tokizenak bereziki, orduko jainkoekin topo egin ahal izateko biderik artezena dira, ez bakarra. Mendiak jainko santutegiak zirela jakinik, Euskalerriko mendiek ba ote dute Sumeria edo Egiptoko jainkoen oihartzunik? Eta baiezkotan, hortik has daiteke mitoazterketarako bide bat.

Asaben jainko nagusien izenak ezagutu: Ainamendi/Montaine, Ainomendi/Montaña egituretan, adibidez, eta horrela, An/Anu sumeriar-akadiarren edo ibar bereko urartiarren Inu edo hurriten Eni *Zeru*² jainko aita nagusia aurkitu Mendina/Mendino, Montini santutegietan.

Antxinako santutegien izenetik An/Anu ³Zeru² jainkoa ezagutuez gero, euskal mito-erritoei ere galdegin diezaiekegu. Ba ote du An/Anu, Ino, Eni jainko horrek euskararen orotzan ezelako otoitz-asperenik edo ba-tateko oihuzkorik edo erritoetan inolako ospakizunik?

Euskararen umetzaroko lehen otoitz urrumak ene, enei, ino, ainü, etab. aurkitzen ditugu, eta ospakizunetan, berriz, ospetsuenak Inote, ots, ³Inoren garaia², hau da, Sumerian bezala, *inoak* eta *aieneak* abesteko aldia. Nork abesteko, baina? Hain zuzen ere, *inosoek*, *inudeek*, *unaiek*, *anutuek* Donostiako Inotean bezala eta. Zeren antsiaz edo Inogandik 1 zer antzitu ahal izateko? Urteko=annu(l) anoa, anhoa, anoia, anonna(l). Beste ospakizun bat Ononzaro, babiloniarrek Anum.zaro ³Anuren naza² izenaz ospatzen zutena eta euskaldunok gero Kristoren jaiotza esateko erabili izan duguna (2). Horrela ezagutzen dugu An/Inu gizadi jakinduriako protoeuskatikn hizkuntza arketipoetriko bat dela.



Euskara mitoaztertzeko bide guztiak dira onak: euskal onomastika, toponimia, gramatika eta bere parte bakoitza, etnografia, antropologia, herri jakinduria, etab., denetan duelako euskarak ohar onik. Bide batzuk aztertuak izan dira, eta bere fruitua eman dute, beste batzuk azterbidean doaz eta denetan ere euskara aholkulari ona ezeze, liburu irekia dager.

2. Euskara, hermeneutika berria

Neolitos Aroko jakinduria berrian gizakiak jainkoekiko harreman-errittoa irazi edo berriztatu zuen eta harremanon itun-agiria erritualki bertaxutu zuen hizkera da. Euskara errito honen gordailu zintzoa eta aparta da eta, halatan, bere burua eta inguruko beste hizkuntzen egitura aztertzeko giltza du, Anu/on, Anu/anoi, Anu/un bezalako hizkuntza formulak edo izkuneak eratuz egin zuela lehen ele-hezkuntza. Euskara, adibidez, grekoa eta latina aztertzeko gai da, amakideak ba dakialako alabako-kideak nolatan jaio eta nondik jantzi ziren, harreman/armonia hizkunean, adibidez.

2.1. Euskararen jatorrizko oroitzaz jabetu

Euskararen oroitza hitzaren sorbururaino heltzen delarik, hitza arketipoz-arketipo aztertzen daki, aditza atalka urkultzen dakien bezala. Arketipo bakoitzak kontsonante batek eta haren alofonoek ordezkutzen dute. Hagatik antzinako idazkerak kontsonanteak bakarrik markatzen zituen, ahoskerako bokalak arketipoen kantitatea soilik eta nolabait semantikaren gehigarria jasotzen zutelarik. Euskarak ez du testu zaharrik, naiz Megalitos garaiko minoikoak eta iberiarren hilerriko idazkizunak euskararen antzeko izan eta hitz asko euskararekin bat datozen.

Ainamendi alderdiko megalitikoan ez dager idazkizunik. Triku-harritzarrak gorpuzkinen gordailu sendo ziran, baina euskara bera da oroitzaren gordailu ziur. Euskaldunak ez du idazkizunaren beharrik nabaritu izan, haren eredu edo jainko arketipoak nabariak direlako izadian eta giza arketipoak norbere konplexuan.

Gizaldietako lainoek, ostera, euskararen agiriok ilundu egin zituen, arketipoen argibidea galdurik, euskararen barne-muina ez baitugu ulertzen jadanik euskaldunok, euskarari berari berera galdetu ezik. Euskara jakin ezeze, haren barne-muinaz, hots, euskara mito biziak, jabetu behar dugu, euskararen jatorrizko gurasoak eta haien jakinduria ezagutu ahal izan eta euskara eta haren hermeneutika Europako Unibertsitate mailara jaso ahal izateko.

2.2. Helburua: Euskararen giltzaz baliatu

Euskararen giltzak historia eta prehistoriako ate asko irekitzen ditu eta ez du antropologia sailean edo hizkuntza arlotan jakintsuaren oharrik egiteko lotsarik. Ahoz-ahoz jasotako oroitzaren jabe izateak ere hartarako eskubide berezia ematen baitio, sorreratik eta hona ez duelako izan idazkizun zurrunduen galgarik, bihurtzerik edo ez-ulerterik.

Gure unibertsitateiek giltza honez jabetuez gero, linguistika mundua (euskararentzat gaurdaino mundu antzua benetan) irauldu ezeze, ikerketa jakingarriak egiteko gai izango da.





2.3. Euskararen europartasuna ozenkatu

Lotsagarria da benetan bai euskaldunontzat eta bai europarrentzat euren hizkuntza zaharrenaren jatorria eta, beraz, balio osoa ez ezagutzea. Europa jaio zeneko, euskara jakinduriaz beteko hizkuntza zen. Europa Antzinako Sortalde Hurbilak eta orduko Asiak (Anatoliak) Orube berrizat jotako lurraldea zen.

Hagatik Orube>Europa dator gerkarren ahozkeran, euskal hizkuntetik hain zuzen. Geroago baten indoeuropearren ustez teoriak sortu nahasteak ez zuen dena atzindu, euskararekin batera, euskarak hein batean uler eta azal dezaken bere garaikideen azpiegitura zabala gelditzen baita. Baina, geroagoko barbaroen sarradak Europan indarrez egin kaltea bera egiten diote euskarari orain bertan indoeuropeismoa bezalako hizkuntza-teoriek. Benetako jatorriaren ezjakinak egiten duen eta diguten kaltea da, noski, eta salatzea eta egia argitzea dagokigu euskaldunoi eta jakinen gainean apologiak egin beharra.

2.4. Lorpenak

Eragozpenen gaintetik lorpenak ematen digute aurrera jarraitzeko adorea eta fruitu hobeen itxaropena. Hitzak aparte, ametsak agintzari hutsak ez direla esateko, euskararen hermeneutika noraino den baliagarri jakiteko, beioa titulu batzuen frogagarria. Hamalau dira dagoneko argitaratuak eta beste batzuk bidean datozke. Lehenengo orrialdean Eleiker zerrendako tituluak jarri dira. Azken bederatzirak internetean kokatzen dira: <http://www.todoebook.com/Erroteta/>

3. Oharrak

1 Eufrates eta Tigris buruko menditar urartiarrek ere Inu deitzen zuten Inkoa eta euren Egoldeko senide hurritek, berriz, Eni. Euskaldunek ere inoka ospatzen zuten Ino eta inkaz eta inkezaz enoiatzen zuten Inko/Inka. Inko egituraz Inoren semea da, ³amako² amaren alaba den bezala, eta Xainko etxeko (santutegiko) Jainkoa, xandre ³etxeko andre² edo santera ³etxe-temploko andere² den bezala. Ora bada, hizkunez santera/xandre. Ino= umnou(g)=himnu(l) apaizen gorespen kantua da, aiene emaztekien alamen kantua ³antxinako kanta² agertzen denez Azkuengan. Sumeriar jakinduria izan zan literatura mota biotan lehenik gailendu zena.



2 Honetan euskara eta euskaldungoaren jakinduria arteza izan da, bere ³itun zaharra² ez duelako alboratu ³itun berriari² bide ematerakoan, ez Inu=Ino jainko zaharraren izena atzindu, jakinduriak aurrera pauso eginala, hizkuntza arketipoak argi berrira egokitu baino. Euskarak ez du Jainko izenengatik eta, beraz arketipoengatik, borrokarik egin, heberkera beranduko hizkuntzak bezala, hagatik euskaren logika hasierako mitologikoak zaintzen du ezelako tirabira edo etenik gabe.

3 Babilonia eta Egiptoko apaizek euren jainko nagusien izenak arketipotzat harturik egin zituzten orduko jakintza guztiko onomastika zerrendak eta eurak izan ziran ele ritualizatuaren ereduak. Ele ritualizatua bide berezia baitzen gizakia jainkoekin harremanetan jartzeko, hitzak artezia lor zezan, hots, ³esan eta egin² eta oker-esanak gizaki eta jainkoen arteko ulerbidean eragozpen txikerrenik ere sor ez zezan.

Mitogramak

Liburuok kultura zaharretako mitogramez eta geure etnografiako irudi egiztagarriekin hornituak dira, eransgarri bezala doazenok, adibidez, *Nut* Ama Handiarena: Egitiar mitograma honetan *Nut(e)* ³zeru², *inude* ezeze, sumerieraz *Antu* deritzaion ama handi, antua dakusagu. *Nut* amak egunero erditu eta orzten du Ra seme iruzkia. Erra beheko uretatik goiko uretara ugaroan doa. *Maat* jakinduria eta *Toth* idazkaria lagun dituela, aztoze burua eta buruan eguzki aroa eta haren gainean ureus sugeñoa daramazki Aphopis herensugearen amarruen salatari. Arratsean Horus biloiak, eskuak zabalik, laguntzen eta gida-tzen du. Azpian etzanik dager *Geb* ³lurra², *ki* sumerieraz, eta erdian laino gainean, *Shu* airea dago, hutsa betetzen, bere beso eta eskuetan betiko biziaren edo aintzaren *ankh* seinu jainkotiarrak daramatzala. Kosmogonia zaharreko lau elementuak agertzen dira: *Inu/uin*, *Utu/su*, *Erra/aire* eta *Ilu/loi* edo egitieraz dagoeneko *Geb* forma gizatua zela. Eurak dira jainkozko lau arketipoak, denak ere giza itxuran antzeztuak, baina beti ere, kosmoko arrastoa daramatela: uhinak, eguzkia, izarrak, aireko lainoa eta *Geb* soineko landareta. Haraz gero, giza konplexuaren arketipoak ere sorkuntza beretik emanak agertzen dira. *Geb* kaizuko *Ka kai>gaia* materiatzat, bere baitako *Ba*, ³ene *ba*², *psykhe* ordezkutzen eta txit santutasun *atsa/As* ³arnasa² santutasun txit zehatzaren sinboloa *Shu* jainkoaren besoetan eta *Geb* gizakiari oparitua.

Gai orokorren gaiak eskemaz laburtuak agertzen dira. Hona, adibidez oihuzko otoiak:

aN	uTu	Ra	iLu	Ka	Ba	as
ene/en	otoi	ara/ario	el/ely	ka/quia	ba/bua	asa/ajai
enei	ut/ux/tira	ra/rau	olé/ióle	ako/eko	bea/vae(l)	jau/zaust
iñó	txut/ixo	arrano	(h)il	gel/gora	ave/afa	jas/txen
oino	et/eit/atx	arraio	ola/alló	gero/coño	but	chao/txek
añó	uju/ujui	rayos	ala(h)	agur	eup/vah	xapi/zape
ainü	otian/utinam	aro/urra	elas/alto	kaixo	hip(i)	txist
aan	zut/aida/tus	arre/aira	ale/ela	kontu	vaya	esti/este
amen	úxala/ostera	arren	alajina	agian	balinba	ezbe

Oharra: Oihuzko deiotan euskara, hebraiera, latina eta erromanikar hizkuntzak dagertz

